

## **7.- IBARRAKO UDALERRIKO ETXEBIZITZA TASATUEN UDAL ORDENANTZAREN 23. ARTIKULUAREN BERRIKUSTEA ETA ALDATZEA; PREZIO ITUNDUKO ETXEBIZITZA LIBREEN ONURA-**

2013ko ekainaren 21ean Antzibar S.A.U.ko ordezkariak bildu egiten dira Ibarako alkate eta bitarteko idazkariarekin.

Bileraren helburua IBARRAKO UDALERRIKO ETXEBIZITZA TASATUEN UDAL ORDENANTZAREN 23. ARTIKULUAREN aldaketa eskatzea da.

Hona hemen artikulua hitzez hitzeko testua.

23. artikulua. Prezio Itunduko Etxebizitza Libre onura dunek etxebizitza izateko duten beharraren betekizuna. Prezio Itunduko Etxebizitza Libre onuradun guztiek (elkarbizitza-unitateko kide guztiak joko dira onuraduntzat) bete beharko dute beste etxebizitza bat ez izateko betekizuna, erabaki hau hartzen den aurreko bi urteetan, dela jabetza osoan edo azalera-eskubidearekin, dela bizi-artean hartaz gozatzeko gauza-eskubidea izanik. Eta hori bete beharko dute etxebizitza- beharra definitzen duen autonomia-erkidegoko araudian xeda- tutako baldintzak eta salbuespenak kontuan hartuta, edo duten etxebizitzak Hiribildua Eraikitze Udal Ordenantzako etxebizitzaren gutxieneko baldintzen programako betekizunak betetzen ez dituenean.

Egungo krisi egoera dela eta ez dute baldintza hori betetzen duen eroslerik topatzen, izan ere etxebizitza berri bat erosteko, dutenek, dutena salmentan jartzera behartuta daude herritarren gehiengoa.

Batzarkideen artean artikulua xedea aztertzen da eta aho batez helburua erosle ezberdinen artean etxebizitzarik ez zuenari lehentasuna ematea zela adosten dute. Gainera etxebizitzaren prezioa 15 urteetan mugaturik dagoenez espekulazio arriskua bermatua geratzen da.

Gaia eztabaidatu ondoren, aho batez

IRIZTEN DU

LEHENA: onartzea Ibarako udalerriko etxebizitza tasatuen udal ordenantzaren 23. artikulua aldaketa. Testuaren idazketa berria:

23. artikulua. Prezio Itunduko Etxebizitza Libre onura dunek etxebizitza izateko duten beharraren lehentasuna.

Lehentasuna izango dute prezio Itunduko Etxebizitza Libre onuradun izateko beste etxebizitza bat ez izateko betekizuna betetzen dutenak. Lehentasunezko baldintza hau Prezio Itunduko Etxebizitza Libre onuradun guztiek (elkarbizitza-unitateko kide guztiak joko dira onuraduntzat) bete beharko dute beste etxebizitza bat ez izateko betekizuna, erabaki hau hartzen den aurreko bi urteetan, dela jabetza osoan edo azalera-eskubidearekin, dela bizi-artean hartaz gozatzeko gauza-eskubidea izanik. Eta hori bete beharko dute etxebizitza- beharra definitzen duen autonomia-erkidegoko araudian xeda- tutako baldintzak eta salbuespenak kontuan hartuta, edo duten etxebizitzak Hiribildua Eraikitze Udal Ordenantzako etxebizitzaren gutxieneko baldintzen programako betekizunak betetzen ez dituenean.